

## 2023/06/15eko BILERAREN AKTA

**LEKUA:** Kirol Etxea (Donostia)

**IRAUPENA:** 9:00etatik 13:30era

### PARTE-HARTZAILEAK:

|    |                     |              |    |                     |             |     |                   |                               |
|----|---------------------|--------------|----|---------------------|-------------|-----|-------------------|-------------------------------|
| 1  | Eneko Sanz          | Aia          | 35 | Maiderrasti         | Hernani     | 69  | Ekain Iribarren   | Pasaia                        |
| 2  | Monika Atxutegi     | Alegia       | 36 | Ixone Aiestaran     | Hernani     | 70  | Luke Martin       | Pasaia                        |
| 3  | Maiderraldazabal    | Alkiza       | 37 | Esther Navajas      | Hernani     | 71  | Olatz Goienetxea  | Pasaia                        |
| 4  | Jone Beloki         | Amezketza    | 38 | Pilar Blanco        | Hondarribia | 72  | Mikel Leunda      | Soraluze                      |
| 5  | Bakarne Portuburu   | Andoain      | 39 | Nekane Azurmendi    | Ibarra      | 73  | Nerea Cereceda    | Tolosa                        |
| 6  | Nahia Artola        | Anoeta       | 40 | Izaskun Urrestarazu | Ibarra      | 74  | Garazi Arregi     | Tolosa                        |
| 7  | Maiderrtxaniz       | Aretxabaleta | 41 | Iraia Labaka        | Ibarra      | 75  | Xabat Turrillas   | Tolosa                        |
|    |                     | -Eskoriatza  | 42 | Mikel Lekuona       | Ibarra      | 76  | Jon Oyarzabal     | Urnieta                       |
| 8  | Beñat Arizabaleta   | Aretxabaleta | 43 | Alazne Elorza       | Idiazabal   | 77  | Beñat Zamalloa    | Urretxu                       |
| 9  | Eñaut Beltran de H. | Aretxabaleta | 44 | Amaia Izeta         | Irun        | 78  | Maite Iribar      | Usurbil                       |
| 10 | Blanka Jauregi      | Arrasate     | 45 | Nagore Anabitarte   | Irun        | 79  | Lurdes Arteaga    | Zaldibia                      |
| 11 | Mikel Arostegi      | Astigarraga  | 46 | Patricia Valencia   | Irun        | 80  | Alvaro Bengoa     | Zarautz                       |
| 12 | Mikel Rodriguez     | Astigarraga  | 47 | Josune Artola       | Irura       | 81  | Ainitze Azurmendi | Zegama                        |
| 13 | Idurre Aierdi       | Astigarraga  | 48 | Aintzane Agirre     | Irura       | 82  | Leire Otaegi      | Zestoa                        |
| 14 | Aloña Larrañaga     | Azpeitia     | 49 | Nerea Manzidor      | Itsasondo   | 83  | Ainhoa Larrea     | Zizurkil                      |
| 15 | Ainhoa Zabala       | Azpeitia     | 50 | Isabel Sanz         | Legazpi     | 84  | Ane Artutxa       | Zizurkil                      |
| 16 | Jon Unanue          | Azpeitia     | 51 | Josune Garcia       | Legazpi     | 85  | Karmele gomez     | Zumaia                        |
| 17 | Ane Arenas          | Azpeitia     | 52 | Eneko Altzelai      | Legazpi     | 86  | Alaitz Iturzaeta  | Gure Plaza Txo                |
| 18 | Jaione Fraile       | Beasain      | 53 | Ion Treku           | Oiartzun    | 87  | Josean Castaño    | GFA                           |
| 19 | Nagore Narbaiza     | Bergara      | 54 | Ainhoa Txapartegi   | Oiartzun    | 88  | Nekane Aranburu   | GFA                           |
| 20 | Alazne Nieto        | Bergara      | 55 | Mikel Gonzalez      | Oiartzun    | 89  | Karmele Bartolome | GFA                           |
| 21 | Ana Carrere         | Deba         | 56 | Nekane Martiarena   | Oiartzun    | 90  | Teresa Alday      | GFA                           |
| 22 | Markel Aznal        | Deba         | 57 | Ion Lopez           | Oñati       | 91  | Jon Vicente       | GFA                           |
| 23 | Laura Alday         | Deba         | 58 | Xabi Murgiondo      | Oñati       | 92  | Xabier Ximenez    | GFA                           |
| 24 | Miren Mancidor      | Donostia     | 59 | Maria Ardions       | Oñati       | 93  | Ainara Iraeta     | GFA-B.Teknikoa                |
| 25 | Maiderr Gomez       | Donostia     | 60 | Koro Ruiz           | Ordizia     | 94  | Irene Sierra      | GFA-B.Teknikoa                |
| 26 | Leire Orella        | Donostia     | 61 | Maria Rodriguez     | Ordizia     | 95  | Irati Izagirre    | GFA-B.Teknikoa                |
| 27 | Itziar Bilbao       | Donostia     | 62 | Idarreta Cardona    | Orio        | 96  | Teresa Zinkunegi  | GFA-B.Teknikoa                |
| 28 | Nora Urkidi         | Donostia     | 63 | Cristina Vazquez    | Pasaia      | 97  | Estibaliz Zabal   | GFA-Gaztegunea                |
| 29 | Pilar Ibazeta       | Donostia     | 64 | Ion Ander Blanco    | Pasaia      | 98  | Urko Imaz         | GFA-Gaztegunea                |
| 30 | Marta Hernandez     | Donostia     | 65 | Lorea Etxabe        | Pasaia      | 99  | Iñaki Bengoetxea  | GFA-Gaztegunea                |
| 31 | Maialen Aranguren   | Elgoibar     | 66 | Monica Cuña         | Pasaia      | 100 | Idoia Murua       | GFA-Gaztegunea                |
| 32 | Maria Cid           | Elgoibar     | 67 | Enara Egibar        | Pasaia      | 101 | Lierni Goya       | GFA-Gaztegunea                |
| 33 | Maialen Astigarraga | Elgoibar     | 68 | Itsaso Bueno        | Pasaia      | 102 | Maiderr Varela    | GFA-Gaztegunea                |
| 34 | Dorleta Ezeiza      | Eskoriatza   |    |                     |             | 103 | Maite Telleria    | GFA-Gaztegunea<br>(Idazkaria) |

- 46 suspertzaile eta udal-teknikari
- 40 hezitzaile
- Aldundiko 17 teknikari

## GAI-ZERRENDA

- 1.- ONGIETORRIA
- 2.- 2022-2023ko PLANAREN EBALUAZIOA
- 3.- 2023-2027 LEGEGINTZALDIRAKO PROPOSAMENA LANDU
- 4.- SAIOAREN ITXIERA:
  - a) Bileraren balorazioa
  - b) Hurrengo bilera-data
- 5.- BESTEAK

## LANDUTAKO GAIAK

### 1. Ongietorria

Nagore Anabitartek (Irun) eta Josean Castañok (GFA) bertaratutakoei ongietorria egin diete.

Bileraren helburua azaldu dute: ikasturte honetako ebaluazioa egitea, baina arreta berezia emango zaio datorren legegintzaldiko planifikaziorako oinarriak zehazteari.

Ondoren, gaurko bilerako gai-zerrenda eta lanaren dinamika azaldu dituzte.

Bestalde, Batzorde Iraunkorreko udal-teknikarien artean izango diren aldaketak azaldu dituzte: Hernaniko teknikariak utzi egingo du, eta Eibar eta Lasarte-Oriako teknikariak sartuko dira.

Jarraian, lehen puntuarekin hasi gara.

### 2. 2022-2023ko PLANAREN EBALUAZIOA

Josean Castañok aurkeztu du.

2022-2023 planean aurreikusitako 27 ekintzetatik 25 garatu dira; garatu gabe gelditu direnak honako hauek izan dira: "Gazteekin elkarlanean: Gazteen eta administrazioaren arteko egitasmoa" eta "Sexkuntzaren podcasta: Ekoiztu eta zabaldu".

Bestalde, legegintzaldi honetako azken ikasturtea izan da; hau da, ziklo itxiera. Beraz, planifikazioak legegintzaldiko ebaluazioari bideratutako ekintza dezente jaso ditu.

Ondoren, erronkaz erronka egindakoa azaldu du.

Bukatzean galderak egiteko denbora utzi da: Egon ez direnez, ebaluazioak onespena jaso du.

### 3.- 2023-2027 LEGEGINTZALDIRAKO PROPOSAMENA LANDU

Nagore Anabitartek orain landuko dugun puntuaren garrantzia azpimarratu du. Deialdiarekin batera bidali dizuegun dokumentuan ikasturte honetan egindako jarduerak (ebaluazioak, adierazleak...) jaso dira, laburpen gisa. Asmoa da material hori gaur erabiltzea hurrengo legegintzaldirako plangintzaren oinarriak zehazteko. Lanketa hori taldetan egingo da (sarreran emandako pegatinetan bakoitzari dagokion taldea azaltzen da eta lantalde bakoitzaren gela ere seinaleztatuta dago).

Hala ere, joan aurretik txostenari azaleko errepasso bat eman zaio eta lehen puntua azaltzeko bideo bat jarri da, 2019-2023 legegintzaldiaren ibilbidea zein izan den ikusteko.

Ondoren Josean Castañok beste puntuak laburtu ditu: ebaluazio-prozesua, ondorio nagusiak eta erronken azalpena.

Galderak eta ekarpenak egin ez direnez, taldeetan banatu gara.

#### 4.- Saioaren itxiera

Taldetako lana bukatzean gela nagusira bueltatu gara eta Josean Castañok eta Batzorde Iraunkorreko udal-teknikariak saioari amaiera eman diote.

Bertaratutako guztiei eskerrak eman dizkiete parte hartzeko egin duten ahaleginagatik eta baita taldeetan egin duten lanagatik ere. Bestalde, bilera gauzatzeko lanean aritu direnei eta Batzorde Iraunkorreko udal-kideei ere beren inplikazioa eskertu die.

Argitu da landutako guztia jaso eta aktarekin batera zabalduko dela (2. eranskina). Hemendik aurrera, uztaila eta iraila bitartean, egindakoa lau urteetan nola antolatuko dugun landuko da. Esandako guztia jasotzeak ez du esan nahi dena egingo denik, baina aintzat hartuko da, noski.

Datorren ikasturteko lehen bilerak zehaztu dira:

- Foro teknikoa: urriak 18
- Hezitzaileen foroak: haurrena azaroaren 8an eta nerabeena azaroaren 9an.

Dena den, data horiek behin-behinekoak dira, politikari berriek foro politiko bat egitea erabakitzen badute, agenda baldintzatu dezaketelako.

Udal-teknikariak adierazi dute:

- Goiza pozgarria izan dela, lan asko egin delako.
- Aldez aurretik egin den lana itzela izan dela.
- Nahiz eta hasieran azaldu den atzerapenarekin doala, politikari berrientzako euskarriak behar dituztela. Uztailaren 15erako bidaltzen saiatuko gara.







Balorazio-inkesta QR baten bitartez bileran bertan betetzeko aukera eman da (emaitzak eranskinetan 1).

#### 5.- Besteak

Besterik gabe, bilera 13:30ean bukatu da.

# ERANSKINA 1: 2023ko ekainaren 15eko Foro Orokorraren bilerari buruzko inkestaren emaitzak (39 inkesta jaso dira)


## Parte-hartzea



### Alderaketak:


1

Parte-hartzearen alderaketa  
iazko data berean egin zen  
foroarekin



2


Hezitzaileen  
eta  
technikarien  
arteko  
alderaketa




3

Iazko data  
berean egin  
zen  
foroarekin


### TEKNIKARIAK






4

2022-2023  
ikasturteko  
beste  
bilerekin  
eta  
ikasturteko  
media





### 2019-2023 legegintzaldiko media



### Ekarpenak:

## TEKNIKARIAK

Gure lan taldean ez zegoen hezitailerik. Saioen eduki asko landu nahi izan dira oso denbora gutxian

Jarraitu horrela lanean, zorionak

Eskerrik asko egin duzuen lan handiagatik. legealdiko memoria txostenaren inguruan Joseanek egindako laburpen azkarra ere oso ondo 🙌🙌🙌

Oso eraginkorra eta egokia beste behin! Eskerrik asko!!!

Lantaldeetan gogoeta egitea da kostata egiten dena, denbora laburrean eta toki-eta lurralde-ikuspegian, eta 4 urtera begira, kostatzen den lana da, niri behintzat. Bestalde, zorionak egindako lanagatik!

## HEZITZAILEAK

Hezitzaileak eta teknikariak biltzeaz gain, zinegotziek ere parte hartu beharko lukete horrelako ekimenetan.

Lantalde txikietan hezitzaile eta teknikarien artean oreka gehiago egotea askoz aberasgarriagoa izan daitekeela iruditzen zait.

Bilera nahiko astuna iruditu zait batez ere lehenengo zatia. Hezitzaileen foroetan hezitzaileen arteko esperientzia trukaketetarako denbora eskaintzea eskertuko nuke.

## **ERANSKINA 2:**

### **TALDEA: Haurrak 1**

#### **1. PARTEA: Erronkak elkarrekin ulertzea**

##### **a. 1. erronka\_Hitz gakoak. Zerbitzuak prestatzea indarkeriaren kontrako prebentzioa-lana egiteko**

- Indarkeria ezkutuan egon ohi da. Intimitate inguruetan. Ikusezina (5)
- Gune seguruak (5)
- Sare lana
- Prebentzioa
- Koordinazioa (3)
- Prestakuntza (Teoriko-teknikoa) (2)
- Prestakuntza psikologiko-emozionala
- Entzutea
- Komunitatea
- Esku-hartzea definitu eta nola egin behar den jakitea.
- Konfiantzazko harremanak (Gune seguruak, ezkutuko inguruetara iristeko).
- Esku-hartzea: ezin dugulako ezer egin gabe gelditu egoera eta leku desberdinetan.
- Prestakuntza: ez dugu askotan horrelako zerbait espero bainan hor dagoela pentsatu behar dugu (adibidez sexu abusua).
- Hezkuntza ez-formaletik erantzun bat eman behar da.

##### **b. 2. erronka\_Hitz gakoak. Hezkuntza ez-formalaren estrategiak diseinatzea behar emozionalei erantzuteko.**

- Seinaleak (2)
- Hezkuntza formalarekin eta osasun sistemarekin harremanak (2)
- Koordinazioa (5)
- Formakuntza (3)
- Tailerrak
- Emozioak identifikatzen irakastea. Emozio guztiei garrantzia eman.
- Entzute aktiboa (2)
- Arreta-behaketa (3)
- Elkarlana
- Prebentzioa
- Ezagutza
- Baliabideak
- Baliabideak eskaini (barne-kanpo) emozioen kudeaketarako.
- Osasun mentala
- Laguntza profesionala (prebentzioa, detekzioa, esku-hartzea).
- Behatu - gerturatu + entzun - konfinatza transmititu - laguntza eskaini.
- Osasun mentala aintzat hartzea (lehenengo haurra).



**2. PARTEA: Erronkak lantzea**

**a. 1. erronka. Zerbitzuak prestatzea indarkeriaren kontrako prebentzioa-lana egiteko**

**a.1. Toki eta lurralde mailan**

— EKINTZAK

- Jazarpenaren kontrako protokolo-gida-jarraibide-irizpideak sortu (5).  
Bullying, indarkeria e.a. Jarraibideak
- Indarkeria kasuen aurrean nola jokatu jakiteko protokolo zehatz bat prestatzea (hautxoko guztientzako erreferentea)
- Indarkeriaren aurkako gida bat sortu
- Tratu onen sustapena egiteko egistamoa hezkuntza formala eta ez formala koordinatua eta guraso elkarte nahiz osasun sistema barne
- Sexologia zerbitzuarekin batera sexu indarkeria edo indarkeria matxistari buruzko prebentzio lana
- Indarkeriaren prebentzio zein detekziorako adierazleak zehaztea
- Kiva bezalako proiekturen bat abian jarri gaztelekuan
- Emozioen lanketa haurrekin (2)
- Sexu hezkuntza haurrekin
- Ipuin kontaketa jazarpena eta indarkeria lantzeko haurrekin
- Rol playing bullying-are inguruan erakusteko babestearen garrantzia (elkarbizitza)
- Indarkeria jasan dutenen bizipenak entzun, izan ere, identifikatuak sentitu daitezke
- Hautxokoak gune seguru bilakatzeko dinamikak prestatu eta gauzatzea, baita konfiantzazko harremanak eraikitzeko ere.
- Lurralde mailan eskuhartzeko orduan sareko kideek begirada berdinetik egitea eskuhartzea
- Lurralde mailan topaketak beste herri batzuetan zer gertatzen den
- Lan baldintza egokiak hau dena egiteko (orokorra)

— LANTALDEA

- Koordinazio mahaiak sortu haurraren inguruko profesionalak (gazteria zerbitzua, ikastetxe, gizarte zerbitzuak, berdintasun saila, ludoteka, aisialdia...) (7)
- Indarkeriaren kontrako prebentziorako estrategiak landu eta honen inguruko hitzaldiak eman (gaien lanketa).
- Jazarpen mahaien eraketa toki mailan (detekzioa erantzuteko bideak eta prebentzioa sustatzeko)

— FORMAKUNTZA

- Indarkeria mota desberdinen detekzioaren inguruko formakuntza (5)
- Hautzaroko sexu abusuen inguruko formakuntza sakona (2)
- Formakuntza: indarkeria egoera bat nola identifikatu (hezitzaile, ikastetxe,

familia, teknikariak...)

- Indarkeri baten aurrean nola eskuhartu eta "irtenbidea" eman. Formatu hezitzaileak, teknikariak eta politikoak?
- Formazio/trebakuntza: -Haurren begiradako behaketan, entzutean. - Hezitzailearen lekutik, norbere burua zaintzetik.
- Berdinen arteko indarkeriaren inguruko formakuntza

— **BESTEAK**

- Indarkeriaren inguruko kanpaina sare sozialetan
- Herri mailako sensibilizazio kanpainak
- Herri hezitzaile figura Oinherri.
- Hezkuntza ez formalaren garrantzia azpimarratzea, lantzea.
- Materialak sortu gaia lantzeko: ipuinak, bideoak...
- Komunikazio asertiboaren aldeko kanpaina hizkuntza bortitza baztertzeke
- Kanpainak komunitatean.
- Babesgune irudi bat sortzea

*Kronograma*

— 2023 – 2024

- Indarkeriaren inguruko formakuntza sakon bat. Ohiko formakuntzak bainan sakonagoa proposatzen zuten eta hurrengo hiru ikasturtetan gaiaren inguruko jarraipena egiteko eta esperientziak partekatzeko Topaketak egin.
- Koordinazio mahaiak sortu haurren inguruko profesionalak (gazteria zerbitzua, ikastetxe, gizarte zerbitzuak, berdintasun saila, ludoteka, aisialdia...) (7)
- Jazarpenaren kontrako protokolo-gida-jarraibide-irizpideak sortu (5). Bulliying, indarkeria e.a.
- Kiva bezalako proiekturen bat abian jarri gaztelekuan.
- Indarkeriaren inguruko kanpaina sare sozialetan.
- Herri mailako sensibilizazio kanpainak

— 2024 – 2025

- Topaketak (Indarkeriaren inguruko jarraipena egiteko eta esperientziak partekatzeko).
- Emozioen lanketa hurrekin
- Ipuin kontaketa jazarpena eta indarkeria lantzeko hurrekin
- Rol playing bullying-aren inguruan erakusteko babestearen garrantzia (elkarbizitza)
- Indarkeria jasan dutenen bizipenak entzun, izan ere, haurrak identifikatuak sentitu daitezke
- Haurtxokoak gune seguru bilakatzeko dinamikak prestatu eta gauzatzea, baita konfiantzazko harremanak eraikitzeke ere.

→ Herri hezitzaile figura Oinherri.

#### BI IKASTURTE ONDOREN, BALORAZIOA EGIN

— 2025 – 2026

- Topaketak (Indarkeriaren inguruko jarraipena egiteko eta esperientziak partekatzeko).
- Materialak sortu gaia lantzeko: ipuinak, bideoak...
- Komunikazio asertiboaren aldeko kanpaina hizkuntza bortitza baztertze

— 2026 – 2027

- Topaketak (Indarkeriaren inguruko jarraipena egiteko eta esperientziak partekatzeko).
- Kanpainak komunitatean.

#### OROKORRAK:

- Lan baldintzak egokitzea hau dena egiteko.
- Hezkuntza ez formalaren garrantzia azpimarratzea, lantzea.
- Haurtxokoa=Babesgune irudia sortzea.

### **b. Erroka. Hezkuntza ez-formalaren estrategiak diseinatzea behar emozionalei erantzuteko**

b.1. Toki eta lurralde mailan

— EKINTZAK

- Emozioak eta osasun mentala lantzeko materialak lortu, sortu, elkarbanatu... 1,2,3 Emozi ON! jolasa adibidez. (3)
- Estrategiak diseinatu (2)
- Kasuen aurrean jarraitu beharreko eskuhartze protokoloa
- Emozioen txokoa
- Emozioen kudeaketari garrantzia eman eta landu modu ludiko batean
- Osasun mentalarentzako positiboak diren ekintzak gauzatu (yoga, meditazioa, terapiak, naturarekin harremana)
- Gune seguruak
- Haurrein adierazi jarrera bakoitzaren "arrazoia". Guztiok une berean ez dugula emozio bera bizi.
- Nola sentitzen naiz? Batzuetan ez dakigu. Material desberdinak erabili (bakoitza nahi duen materiala). Egoera desberdinen inguruko bideoak ikusi eta bakoitzari burura etortzen zaiona besteekin konpartitu.

— LANTALDEA

- Tokiko baliabide ezberdinen arteko koordinazioa (Osasun zerbitzua, ikastetxea, kirol taldea...)
- Komunitateko eragile desberdinez lantaldeak osatu (Haurtxoko, gazteleku,

osasan zentroa, gizarte zerbitzuak, ikastetxeak, kulturetxeak...). Donostian Erlautza taldea.

- Koordinazioa hezkuntza formala-ez formala.
- Emozioen kasuan garrantzitsua iruditzen zait familiarekin, hezkuntzarekin harreman jarraia (komunikazio jarraia)
- Ikusten ditugun egoera desberdinak gure lankideekin konpartitu (bilduz eta egoerari aurre nola egin dezaiokegun pentsatu). Bakoitzari burura etortzen zaizkion ideiak kontutan hartuz.
- Deribazioak zerbitzu ezberdinetara (koordinazioa).
- HNG mahaia sortu agente guztiekin, psikologoa honen barne.
- Arloko lana zehaztu.

#### — FORMAKUNTZA

- Osasun mentaleko arazo desberdinen inguruko ezagutza, formazioa eta detekzioa (2).
- Inkestan (ZMZ?) ateratako erantzunak hausnartu, errealitatera eraman eta ateratako beharretan formatu.
- Emozioen formakuntza (osasun arazoaren inguruko formakuntza). Zertan fijatu behar gara.
- Osasun mentaleko adierazleen formakuntza.

#### — BESTEAK

- Osasun mentala zaintzeko aholku gida sortu.
- Osasun publikoan osasun mentaleko zentroak beteta daude. Bitarteko gehiago psikologoak haurrengana iristeko, ez daude nahikoak.
- Bizitza estilo osasuntsuak sustatu.
- ZMZ proiektua legealdi erdian eto amaieran berriz ere aurrera eramatea.
- Osasun mentalaren inguruko kanpainak (Sare sozialak eta abar).
- "Berba-lagun" arazoei buruz hitz egiteko pertsona.

#### *Kronograma*

#### — 2023 – 2024

- Komunitateko eragile desberdinez lantaldeak osatu (Haurtxoko, gazteleku, osasun zentroa, gizarte zerbitzuak, ikastetxeak, kulturetxeak...). Donostian Erlautza taldea.
- HNG mahaia sortu agente guztiekin, psikologoa honen barne.
- Arloko lana zehaztu.
- Gune seguruak
- Emozioen txokoa
- Emozioen kudeaketari garrantzia eman eta landu modu ludiko batean
- Nola sentitzen naiz? Batzuetan ez dakigu. Material desberdinak erabili (bakoitza nahi duen materiala). Egoera desberdinen inguruko bideoak ikusi eta bakoitzari burura etortzen zaiona besteekin konpartitu.

- Haurrein adierazi jarrera bakoitzaren "arrazoia". Guztiok une berean ez dugula emozio bera bizi.
- Koordinazioa hezkuntza formala-ez formala.
- Ikusten ditugun egoera desberdinak gure lankideekin konpartitu (bilduz eta egoerari aurre nola egin dezaiokegun pentsatu). Bakoitzari burura etortzen zaizkion ideiak kontutan hartuz.
- Estrategiak diseinatu (2)
- Emozioen kasuan garrantzitsua iruditzen zait familiarekin, hezkuntzarekin harreman jarraia (komunikazio jarraia)
- Osasun mentalarentzako positiboak diren ekintzak gauzatu (yoga, meditazioa, terapiak, naturarekin harremana)
- Tokiko baliabide ezberdinen arteko koordinazioa (Osasun zerbitzua, ikastetxea, kirol taldea...)
- Osasun mentaleko adierazleen formakuntza.

— 2024 – 2025

- Deribazioak zerbitzu ezberdinetara (koordinazioa).
- Kasuen aurrean jarraitu beharreko eskuhartze protokoloa
- Koordinazio mahaiaren balorazioa.
- Haurrekin ongizate emozionala lantzeko materialak sortu.
- Bizitza estilo osasuntsuak sustatu.
- "Berba-lagun" arazoei buruz hitz egiteko pertsona.
- ZMZ proiektua legealdi erdian eto amaieran berriz ere aurrera eramatea.

— 2025 – 2026

- Materialak sortu eta konpartitu
- Emozioak eta osasun mentala lantzeko materialak lortu, sortu, elkarbanatu... 1,2,3 jolasa adibidez. (3)
- Osasun mentalaren inguruko kanpainak (Sare sozialak eta abar).

— 2026 – 2027

**BALORAZIOAK:**

- Taldeko partehartzaileek landu genituen bi erronkak antzekoak zirela, desberdintzea zaila izan dela eta aipatu diren aspektu asko biezat balio dutela esan zuten.
- Bakoitzak aurretik zein taldean edo zein erronkan aukeratu ahal izatea proposatzen dute.
- Hezitzaileak bere teknikariekin batera egotea egokiago zela aipatu zuen hezitzaile batek. Baina beste bati aitzitik, talde desberdinetan banatzea interesgarriagoa zela iruditu zitzaion, horietan landutakoa ezagutzeko eta gero lantaldean konpartitzeko.
- Teknikari batek komunitateko eragile desberdinen (udala, zerbitzuak, ikastetxeak, gizarte zerbitzuak...) arteko koordinazioa lortzeko zailtasuna azpimarratu zuen.

## TALDEA: Haurrak 2

### ERRONKAK:

1. Haurrentzako zerbitzua komunitatean txertatuta egotea eta denontzat izatea.
2. Entzunak izatea, galdetuak izatea eta parte hartzea.

### 1. PARTEA: Erronkak elkarrekin ulertzea

#### a. 1. Erronka\_Hitz gakoak

- Unibertsalak: Zerbitzuak denentzako direlako edo izan behar dutelako.
- Aniztasuna: Komunitate asko daude eta guztiak hartu behar dira kontuan.
- Parte hartzaileak: denek parte hartzeko.
- Inklusiboa.
- Elkarreragina: Komunitate barruan eragile guztien artean elkarreragin bat egon behar duelako.
- Sare komunitarioa: Beharrezkoa da komunitateko eragile desberdinen artean aritzea.
- Integratzailea
- Presentzia: herri mailan zein bertako parte-hartzaileekin
- Eskuragarritasuna: Familien beharrak kontuan hartu behar dira, pobrezia, haur horiei erantzun behar zaie.
- Berdintasuna. Denek aukera berdinak ez dituztelako.
- Harremanak: Komunitateko eragile desberdinen artean.
- Parte-hartzea: Beraien parte-hartzerik gabe ez dugu gure bidea egingo.
- Ezinbestekoa: Gizartearen ikuspegitik, gure zerbitzua ezinbestekoa da.
- Kulturartekotasuna: Gero eta lurralde desberdin gehiagotako jendearekin egin behar dugu lan, beharra dago.
- Komunitarioa: Garrantzitsua da herrian.
- Proiektu pedagogiko partekatuak: Parte-hartze eta elkarreragin horretan auzoak edo herriak partekatu behar du proiektua.
- Dohainik: Hala izan behar luke proiektuak
- Ikusgaitasuna: Ezagutzera eman behar dira herrian
- Baliabideak: Horrelako zerbitzu bat eskaintzeko baliabideak jarri behar dira, giza baliabideak, ekonomikoak...
- Segregazioa: Ekidin egin behar dugu.
- Euskara: Integrazio edo txertatze lan horretan erdigunean jarrita behar genuke.

#### Eztabaida:

- Ondo dago erronka bezala agertzea. Beharra dago. Errealitate hau da.
- Era eta jatorri askotako haurrak ditugu, aniztasun handia dago, eta beharrezkoa da.
- Elgoibarren, bi ikastetxetako haurrak etortzen dira. Ikastolakoak, ekintza bereziak daudenean bakarrik. Orduan izaten da aniztasun handiagoa.
- Diruarekin ere lotuta dago. Batzuek ezin dute etorri.
- Elgoibarkoa dohainik da. Baina Haur batzuk ez dira etortzen eskolaz kanpokoak dituztelako, eta denborarik ez. Diruarekin lotuta dago, baina ez ludoteka ordaintzearekin lotuta, haur horien aukerekin baizik. Besteek ezin dute eskolaz kanpoko jarduera horietara joan.
- Aretxabaleta nahiko komunitarioa da. Herri guztia asko inplikutzen da antolatutako gauzetan. Eta ludoteka ere asko hartzen da kontuan herrian zerbait antolatu nahi denean.

b. 2. Erronka Hitz gakoak

- Sistema parte-hartzailea: Aurrekoarekin lotuta, gazteen iritzia entzuteko sistema sendo bat jarri behar da martxan. Irunen aurten ibili dira ikastetxe desberdinekin. Hori da bidea.
- Zer da parte-hartzea, eta nola ulertzen dugu? Hemen agian denok berdin ulertzen dugu, baina hemendik kanpora ez.
- Agente aktibo izatea.
- Espazioak: Haurrei entzuteko, esateko, galdetzeko espazio seguruak sortu behar dira, beraiek eroso eta aktibo sentitzeko.
- Emaitzak: Esaten digutenarekin zer egin? Nola egin? Zertarako galdetu?
- Haurrak herritar beti: askotan etorkizuneko heldu gisa hartzen dira kontuan. Integratuta egon behar lukete, ez bakarrik herrian parke bat egin behar denean edo datuak behar ditugunean.
- Helduzentrismoa: saihestu. Erabaki askoren atzean helduen perspektiba dago. Elkar ulertzea oso garrantzitsua.
- Eskubidea: Kontzientzia hori hartu behar du gizarteak. Guk jakin arren.
- Herritartasun aktiboa: Bultzatu egin behar da.
- Erdigunean: Haurrak erdigunean.
- Perspektiba: Helduen perspektibatik atera eta beraien buruan sartu behar dugu.
- Benetakoa: Parte-hartzea bai, baina benetakoa.
- Prozesua: Herritar izatea eta parte-hartzailea izatea prozesu bat da, eta haurren adinera eta gaitasunera egokituta egon behar du.

Eztabaida:

- Batzuetan badago aurreiritzi bat... batez ere nerabeek ez dutela parte hartzen. Baina gizarte osoaren datuak ikusita, ikusten da helduen artean gauza bera gertatzen dela.
- Pasaian eskubideen plana dugu. Orain aipatutako ildotik, galdetzen zaie zer nahi duten, baina ia-ia guk esaten diegu zer nahi duten. Intentzio onenarekin, baina egia da marko moduko bat ematen zaiela erabakiak hartzeko. Adibidez, orain parke bat aldatu behar da eta iritzia eskatu zaie. Hala ere, egia da funtzionatzen duela. Haur batek ikusten du berak bozkaturakoa edo diseinatutakoa hor dagoela, egin dela. Horrek eramango ditu gero ere parte hartzera eta aktiboki funtzionatzera.
- Baina parte-hartzea nahi gabe horretara enfokatzen da. Politikoki oso polita da, modan dago, baina ez dakigu zer den. Dominak jartzeko oso gauza erraza da parte-hartzea.
- Harago joan behar genuke, ez da programazioa bakarrik, haurtxokoa parte hartzea bakarrik; herria izatea da.
- Aretxabaletan, eremu bat aldatu behar denean, herri osoak parte hartzen du. Orain dela gutxi arte, 18 urtetik gorakoek bakarrik bozkatzeko zuten, eta azkenengoan 6 urtetik gorakoek ere bai. Parte-hartze handia izan da. Emaitzak ere aztertu dira. Emaitzak antzekoak dira adin desberdinetan.
- Egia da diskurtsoan aspaldi sartuta dagoela. Errealitatean hori nola gauzatzen den ikusi behar da. Horretarako proposamenak egingo ditugu.
- Haurrak ez dira herriaren parte bezala ikusten.
- Donostian orain hasi gara haur eta nerabeen partaidetzako organo egonkor bat diseinatzeko prozesuan. Hiru auzotan hasi gara, Irungo esperientzia ezagutu ondoren. Eusko Jaurlaritzatik proiektu pilotuak jarri dituzte martxan. Gero asmoa da Euskadiko organoa sortzea. Herri guztiek osatutakoa.
- Beraz, gauzak badaude, pausoak ematen ari dira.

## 2. PARTEA: Erronkak lantzea

### a. 1. Erronka

#### b.2. Toki mailan

##### — EKINTZAK

- Udal barnean, udal-tasen lanketa egitea (HNGen Sustapen Saitetik antolatzen diren ekintzetako prezioak) politikariekin; eta udaleko beste eragile batzuekin ere landu, haiek ere klik hori egiteko. Gero beraiek ere komunitatearekin lan egin beharko dute, benetan iritsi nahi badugu.
- Haurrak erdigunean jartzea. Herrian antolatzen diren ekintzetan (orduak, baliabideak...) umeak kontuan hartzea eta ikusgarritasuna ematea. Beraiek ere herriaren parte dira. Gure zerbitzuak komunitatean txertatzea nahi badugu, beraiekin kontatu behar dugu, eskolaz harago eta Gabonetako kantuez harago; herri mailan gauza gehiago daude beraiekin lantzeko. Gurasoekin ere lan egin behar da, haiek dira erreferentzia.
- Saretzeari begira, aktiboen mapa bat egitea, herri mailan edo eskualde mailan haur, nerabe eta gazteekin lan egiten duten elkarte, ekintza, eta abarren bilduma bat egitea. Mapeo bat. Horrela, besteek zer egiten duten jakingo dugu eta, haiek gu ezagutu; hala, elkarrekin zerbait egiten has gaitezke. Haurrak bakarrik ez, egin daiteke, haur, nerabe eta gazteen ikuspegitik, denak barnean hartuta.
- Etorri-berriekin, aniztasunarekin, dagoen hutsune bat bete: udal mailan zer egiten den ezagutu, beste sailekin hitz egin, eta identifikatu ondoren, haiekin batera plan bat egin edo landu, harrera-plan bat edo... Donostian Kulturartekotasun Atalekoek badituzte proiektu batzuk. Ezagutu behar genituzke. Elgoibarren badago plan bat. Etortzen diren familiei banatzeko liburuxka bat sortuko da, herrian zer dagoen, zer zerbitzu dauden azaltzeko. Beraien zaletasunak galdetzen zaizkie harrera-planean. Eta horren arabera erantzuten zaie. Donostian Ongi Etorri elkarteak ere egiten du jada.
- Familia horiengana iristeko arazoak ditugu hizkuntzagatik, kulturagatik.... Baliabideak behar dira, itzultzaileak... Lanketa bat egin behar da zentzu horretan.
- Komunikazioa hobetzea, etorkinei begirako estrategiak eta besteei begirakoak ere bai. Gure zerbitzuak guztientzat izateko, lehenbizi familiek ulertu behar dute zer den ludoteka. Uste dute haurrak jolasteko leku bat dela. Hobeto baloratzen dute akademikoki zerbait aportatzen dieten eskolaz kanpoko jardueretara joatea. Dirua dutenek bai, besteak ez. Horrek segregazioa sortzen du. Herrian ludotekak pisua izan behar du musika-eskolak duen bezala. Zerbait egin beharko litzateke. Ekintza publiko eta irekietan presentzia handiagoa hartzea. Jendeak ezagutu behar du zer egiten den bertan, nola funtzionatzen duen. Haurrek beraiek ez dakite zer den. Ikastetxeetan egiten dira aurkezpenak ikasturte hasieran, baina hasita dagoela datozenek ez dakite ezer, eta beste zerbitzu batzuetara bideratzen dituzte. Komunikazio aldetik gaur egun dagoen saturazioari aurre egiteko bide eraginkorrak bilatzea. Gurasoek ez dituzte gure mezuak jasotzen edo irakurtzen. Ekintza bereziaz ez dira enteratzen. Komunikazio-ahalegin berezia egin behar litzateke. Aurreko puntuarekin lotuta dago: garrantzirik ez diote ematen, baina eskolakoak bai, horiek irakurtzen dituzte.
- Kuoten gaia aztertu behar da. Egiatztatuta dago doakotasunak jende gehiago erakartzen duela, baina arriskutsua ere izan daiteke: doakotasunak zerbitzuaren "interesgarritasunari" kalte egitea. Horretarako irtenbidea izan daiteke % 100 arteko



hobariak ezartzea. Baina horrek esfortzu bat eskatzen du, eskatu egin behar da, eta beti berdina dira eskatu behar dutenak. Agian ez da kuota balioa ematen diona, zerbitzuari; bertan lantzen denak eman behar lioke balioa. Beraz, ekintza izango litzateke gaia aztertzea, horri buruz hitz egitea.

Donostian orain arte doakoa izan da. Apuntatzen ziren eta agertu ez. Aurten ebaluatu zen jendeak konpromisoa hartzeko kuota txikia jartzea. Auzo batzuetan kristoren beherakada izan da. Berriz kenduko da kuota. Kontrako eragina izan dezake: kalitatezko zerbitzu bati garrantzia ez ematea. Doakoa bada, ez dira etorriko nahi dutelako edo beraientzat interesgarria den zerbait eskaintzen diezulako, baizik eta etorri daitezkeelako.

Aretxabaletan oso garestia da eta aldameneko herrian doan. Gurasoak kexatu dira. Ondorioz, ekintza batzuk doan jarri dira. Izugarritzko arrakasta. Saiatu dira kalitatezko ekintza horren bitartez fideltasuna sortzen. Lortu dute. Espero dute hurrengo urtean izena ematea. Aurten udalekuetako hobarien sistema sartu dute eta ludotekan ere aplikatzeko asmoa dago. Horrek lagundu dezake.

- Lantalde anitz bat sortzea, haur nerabe gazte eta helduak kontuan hartuta, denak batera. Beharrak zeintzuk diren ikuspegi desberdinetatik ezagutzeko.
- Sentsibilizazio-prestakuntza batzuk herrian egon daitezkeen errealitate desberdinetara (kultura artekotasuna) bideratuta. Arazo bat izan daiteke bakoitzak bere zilborrari bakarrik begiratzen diola.

### b.3. Lurralde mailan (Taula)

#### — EKINTZAK

- Aniztasunaren inguruan lanean dabiltzan erakundeekin lan horizontala egitea (Berdinatasun Zerbitzuarekin sexu-abusuei buruz egin denaren antzera). Lurralde mailan etorri berriekin egiten dena ezagutu... Udal batzuek jada lan egiten dute arlo horretan, eta beste herrietakoa ezagutzea litzateke lehen urratsa, gero bakoitzak bere udalerrian aplikatzeko.
- Mapeoa lurralde mailan ere egin daiteke: lurraldeko herrietan haur, nerabe eta gazteekin lan egiten duten elkarte, ekintza, eta abarren bilduma bat, horrela beste herrietan zer dagoen ere ikus daiteke, ideiak edo hartzeko.
- Kuoten gaia lurralde mailan aztertu daiteke.
- Gaztematikak politikari berriei esan behar die doakotasuna eta unibertsaltasuna funtsezkoak direla. Xirimiri hori iritsi behar zaie. Bileretara ez dira joaten, ez dute denborarik. Hor aztertu beharko lirateke doakoa edo hobariduna izatearena, eta gainerakoak. Aldundiak bultzatu behar du. Arlo bakoitzean zer hobetu behar den Aldunditik iristen bazaie, askoz eraginkorragoa izango da. Kanpaina bat izan daiteke, lurralde mailan.
- Ludoteken presentziarako oso efektiboa izan daiteke ludoteken arteko lurralde mailako jaialdi edo topaketa (adibidez: kilometroak, eskola publikoen jaia...). Gauza positiboak ekar ditzake saretzearen aldetik, harremanen aldetik.... Ideia oso ona iruditu zaie taldekoei.

### Kronograma

#### — 2023 – 2024

- Komunikazioa hobetu. Migratzaileei begirako estrategiak eta beste batzuei begirakoak
- Udal-tasen gaia lantzea unibertsaltasuna bermatzeko.

- Sentsibilizazio-prestakuntzak
- Udaleko sailen arteko ezagutza-plan bat
- Udal mailako aktiboen mapeoa
- Gipuzkoa mailako jaialdia
- Aztertu edo landu lurraldeko udaletan etorri berriekin zer egiten den

— **2024 – 2025**

- Komunikazioa hobetu. Migratzaileei begirako estrategiak eta beste batzuei begirakoak
- Udal-tasen gaia lantzea unibertsaltasuna bermatzeko.
- Sentsibilizazio-prestakuntzak
- Ekintza publiko/ireki gehiago egitea edo parte-hartzea
- Aztertu edo landu lurraldeko udaletan etorri berriekin zer egiten den
- Haurrak erdigunean jartzea. Herrian antolatzen diren ekintza / obra/ ordutegi / baliabide eta abarretan haiek kontuan hartzeko zerbait egitea.
- Herri mailan askotariko lantaldea sortzea (adin guztiak) dauden beharren inguruan hobekuntzak proposatzeko

— **2025 – 2026**

- Komunikazioa hobetu. Migratzaileei begirako estrategiak eta beste batzuei begirakoak
- Lantalde anitz baten sorkuntza
- Ekintza publiko/ireki gehiago egitea edo parte-hartzea
- Gipuzkoa mailako jaialdia
- Aztertu edo landu lurraldeko udaletan etorri berriekin zer egiten den
- Familia guztiengana iristeko komunikazio-baliabideak indartu: itzultzaileak, etab.
- Lurralde mailako aktiboen mapeoa

— **2026 – 2027**

- Komunikazioa hobetu. Migratzaileei begirako estrategiak eta beste batzuei begirakoak
- Ekintza publiko/ireki gehiago egitea edo parte-hartzea
- Gipuzkoa mailako jaialdia
- Aztertu edo landu lurraldeko udaletan etorri berriekin zer egiten den

b. **2. Erronka**

**1.1. Toki mailan (Taula)**

— **EKINTZAK**

- Toki mailako batzorde edo organo bat hezkuntza formaleko ikastetxeek eta hezkuntza ez formaleko eragileek osatua, maiztasun batekin gaiak lantzeko. Bertan haurrak eta eragileak egongo dira. Izan ere, ikastetxeko haur batzuk ez dira joaten ludotekara eta, horrela, herriko beste haurrei ere entzungo zaie, beren iritzia jakiteko. HNGen sustapen-arlotik bultzatuko litzateke edo hark idazkari lanak egingo lituzke. Era horretan, besten zerbitzuen iritzia ere jasoko litzateke. Horretarako tresnak baditugu, baina harago joango ginatke, organo horretan beste kontu batzuez ere hitz egingo genuke. Partaidetza Zerbitzua badago, berak gidatu behar lituzke partaidetzazko zeharkako prozesuak. Guk proposatu dezakegu, eta gero gidaritza partekatua izan: hirigintzako gaia bada, hirigintzarekin, etab..

→ Ondo legoke haurrek osatutako parte hartzeko talde antolatu bat egotea (gazte-mugimendua dagoen bezala, haur-mugimendua). Baina horretarako borondatea behar da, haiengandik atera behar da, inposatua ezin du izan, eta helduek sortua izatea ez da eraginkorra.

Soraluzen oraintxe jarri da abian. Pasaian badaude. Urteetan egindako parte-hartzea sistematizatzea litzateke helburua. Haurren kontseiluak ez dira berriak, udal batzuetan egon da eta orain ez, beste batzuek orain jarri dute... Formula asko egon dira. Eta Gaztematikak oinarrietan ere aurreikusten zuen foro horiek egotea. Igual da hasieran pentsatu genuen foro horiek martxan jartzea. Horrela udaleko beste teknikariei ere deboluzioa egiteko balio dezakete: askotan foro horiek gai zehaztutara bideratu dira (parkeak...), baina herriko edozein gairi buruz hitz egin daiteke bertan: mugikortasuna, hondakinak, argiteria.... Orain arte egindakotik harago.

Taldeari dagokionez, ez du zertan talde bat izan zerbait eskatzeko. Nahikoa izan daiteke 3k nahi izatea. Gu bidelagun izango gara. Haurrek eskatu dezakete udalean zerbait. Gurasoen bitartekotasuna traba bat izan daiteke. Zuzenean udalarekin hitz egiteko aukera izan behar lukete. Parte-hartze bide "xumeagoak" erraztu behar ditugu eguneroko parte-hartzean.

→ Herriren batean egin izan da: politikariak haurrak dauden lekura (ludotekara...) hurbiltzea. Tarteka joan daitezke, sei hilean behin, hiru hilean behin... Eta gauza bera udal-langileekin. Horrela ezagutuko dituzte. Zergatik joan behar dute haurrek udaletxera? Haurrei entzun behar dieten horiek haur horiek benetan ezagutu behar dituzte.

→ Tonucciren "Haurren hiria" gure zerbitzuetan sartzea ekintza bezala: kalera irten eta txakur-kakei oharra jarri (mesedez jaso...). Holakoetan parte hartzea.

→ Zerbitzuetan iritziak eta proposamenak jasotzeko tresnak jarri: postontzia..., eta egutegian nolabait txertatu. Gaztematikan egon zen lantalde bat iaz, eta dinamika batzuk sortu zituzten horrekin oso lotuta. Ez zen lortu zerbitzuetan sistematizatzea. Oso material ona eta erabilgarria da, baina gero erabili egin behar da.

→ Herri-galdekettetan haurren iritzia kontuan hartzea eta beraiei egokitutako dinamikak sortzea. Ez izatea helduenak bezalakoak.

Herritar aktibo izateko, hirigintzan, kulturen, eta abarretan ere beraien iritziaren presentzia bermatu behar da. Modu askotan egin daiteke, ikastetxeen bitartez... Haur guztiak hor daude. Sail bakoitzak berea gidatu dezake, edo zeharkakoa izan. Egon daitezke haurrak eta helduak nahastuta. Baina bakoitzarekin lanketa bat egin behar da: agian hasieran bereizita eta martxan dagoenean elkarrekin.

Haurrei horren guztiaren deboluzioa egitea. Nonbaiten ikus dezatela, haiengana joan eta adierazi... Hauteskunde garaian galdetegi mordoak egiten da, eta gero batez. Orekatu egin behar da.

Ez da bakarrik galdetuz entzutea. Herriaren parte izan daitezke edo entzunak sentitu, adibidez, herriko beste pertsona batzuekin erreka garbitzera gonbidatzen baditugu. Parte sentitu behar dute, gauza onetarako eta txarretarako.

→ Dekonstrukzio-prozesuan sartuta, helduei zuzendutako prestakuntza: haurrak subjektu aktiboak dira. Haurrak ez daude gure azpitik.

→ Ildo berean, beste ekintza bat haurrei bideratuta, beraiek dituzten aukerak eta eskubideak ezagutu ditzaten. Informazioa haien hizkuntza eta moduetara egokitu beharko da. Herri batzuetan egin izan da Haurren Eskubideen Nazioarteko egunean.

## 1.2. Lurralde mailan (Taula)

### — EKINTZAK

- Gaztematikak EAEko beste sareekin duen harremana sendotu behar luke; eten moduko bat dago hor, eta bere helburuetako bat da parte-hartzea. Beste horik espresuki horretarako sortu dira, beraz... Elkar ezagutu behar dute.  
Harremana badago, bilerak ere egin dira, eta hainbat jardunalditan ere Gaztematika izan da aurkezpenak egiten. Planean bazen horretarako ekintza bat, lantalde bat aritu da lanean bi urtez; eta horixe zuen helburua: parte hartzeko beste egiturak eta prozesuak ezagutu eta informazioa partekatzea, hobeto ezagutzeko. Baina gehiago behar dugu: lurralde mailako mapeo moduko bat, zer egin duen bakoitzak, nork parte hartu duen, nola egin duen, ondorioak... Sarearen bitartez egin daiteke eta hori guztia nonbait jaso. Askotan errazena da horietara deitu eta harreman zuzena egitea, baina mapeoa eginda, errazagoa izango da.
- Politikariak eta udaleko beste sailak haurren parte-hartzeari buruz kontzientziaztea, sensibilizatzea eta konpromisoa hartzea. Komunikazio-arloan estrategia egin behar da horretarako. Hori gabe, ez dugu ezer egiten. Diskurtsoa bere egin dute, baina barneratu? Beraz, parte-hartzea “despolitikatu”.
- Parte-hartzeari buruzko prestakuntza, politikari, teknikari, eragile eta hezitzaileentzat. Ez da erraza halakoak dinamizatu eta aurrera eramatea. Beraz, guztiok behar dugu prestakuntza. Dedikazio bat, denbora bat. Hasieratik. Batzuek prestakuntza beharko dute nola bere garrantziaz jabetzeko, besteek nola sustatu jakiteko, beste batzuek zerbitzuan metodologia egokiak aplikatzeko...  
Iritziak jasotzeko dinamikak denok ezagutzen ditugu, baina zenbateraino dira eraginkorrak? Erakutsi egin behar zaie beren iritzia ematen. Ohituegi daude erantzuten, beti erantzuten dute jada ezagutzen dutena, eta ondoren guztiek berdina esaten dute. Benetan jasotzen da beraiek nahi dutena? Horregatik, guk ere behar dugu prestakuntza umeekin hori nola landu ikasteko, nola galdetu, etab.. Prozesu luze bat da, iritzia ematea, lasai, epaitua sentitu gabe... Ezin du izan 3 orduko ikastaro bat.  
ZMZ? Bezalako ekimenei dagokienez, zalantzan jartzen da iritzi horiek egiazkoak diren, balio duten. Hor ez dago umeen iritzia. Herri mailan egin behar da horren lanketa. Lurralde mailan behar duguna da, aipatu bezala, dinamika horiek umei nola aurkeztu jakiteko prestatzea.
- Eraldaketa ez dago gure esku bakarrik, hezkuntza sistema formalaren curriculumean sartu dezakegu? Jaurlaritzari proposatu
- Gipuzkoa mailan egun bat antolatu rol-aldaketa gai hartuta: herriko bizitzaren ohikotasunean helduen eta haurren rola aldatuta. Haurrak arduratuko dira etxeko erosketa egiteaz, etab. Ondo legoke ikusteko haurrek nola ikusten duten heldu-rol hori. Hasieran porrota izan daiteke, baina pixkanaka, lortu daiteke zerbait interesgarria egitea.

### Kronograma

#### — 2023 – 2024

- Toki mailako batzordea sortu hezkuntza formal, ez-formal eta eragileekin (HZ barne).

- Parte hartzeko toki mailako foro /organo bat sortu eta herrigintzan, herri mailako politikan txertatu.
- Haurren hiria (Tonucci) gure zerbitzu/ekintzetan txertatzea.
- Jaurlaritzari proposatu parte-hartzea hezkuntza formalaren curriculumean sartzeko.
- Herri-galdekaketan (kultura, hirigintza...) haurren iritzia kontuan hartzea eta beraiei egokitutako dinamikak sortzea / Galdeketen deboluzioa egin eta jarraikortasuna bermatzea.
- Hurrei eragiten dieten erabakiak hartuko dituztenek haurrak ezagutzea: arduradun politiko eta teknikoak haurrak dauden lekuetara joatea (ludoteka...)
- Helduei zuzendutako prestakuntza: haurrak subjektu aktiboak dira (udal barruan eta irekia).
- Hurrek dituzten aukera eta eskubideen zabalkundea. Informazioa haien eskura jartzea.
- Parte-hartzeari buruzko prestakuntza politikariei, teknikoei, hezitzaileei eta eragileei (bakoitzari dagokion ikuspegitik: sustatzeko, lantzeko metodologia...).
- EAEko beste sareekin harremanak sendotu. Bertan lanean ari diren sail desberdinak, elkarteak, enpresak, esperientziak... ezagutu.
- 

— 2024 – 2025

- Zerbitzuetan iritzia eta proposamenak jasotzeko tresnak jarri: postontzia..., eta egutegian nolabait txertatu
- Herri-galdekaketan (kultura, hirigintza...) haurren iritzia kontuan hartzea eta beraiei egokitutako dinamikak sortzea / Galdeketen deboluzioa egin eta jarraikortasuna bermatzea.
- Gipuzkoa mailan egun bat antolatu rol-aldaketa gai hartuta: herriko bizitzaren ohikotasunean helduen eta haurren rolak aldatuta.
- Hurrei eragiten dieten erabakiak hartuko dituztenek haurrak ezagutzea: arduradun politiko eta teknikoak haurrak dauden lekuetara joatea (ludoteka...)
- Politikariak eta udaleko beste sailak haurren parte-hartzeari buruz kontzientziatu, sentsibilizatu eta konpromisoa hartzeko komunikazio-estrategiak egin

— 2025 – 2026

- Gipuzkoa mailan egun bat antolatu rol-aldaketa gai hartuta: herriko bizitzaren ohikotasunean helduen eta haurren rolak aldatuta.
- Hurrei eragiten dieten erabakiak hartuko dituztenek haurrak ezagutzea: arduradun politiko eta teknikoak haurrak dauden lekuetara joatea (ludoteka...)

— 2026 – 2027

- Gipuzkoa mailan egun bat antolatu rol-aldaketa gai hartuta: herriko bizitzaren ohikotasunean helduen eta haurren rolak aldatuta.
- Hurrei eragiten dieten erabakiak hartuko dituztenek haurrak ezagutzea: arduradun politiko eta teknikoak haurrak dauden lekuetara joatea (ludoteka...)

## TALDEA: Nerabeak 1

### 1. PARTEA: Erronkak elkarrekin ulertzea

- a. 1. Erronka\_Hitz gakoak (parte hartzaile bakoitzak 2 hitz klabe eman ditu)
- Indarkeria (hitza / eskala definitzeko beharra) (II) 2
  - Konfiantzako / ondo sentitzeko espazioak eta harremanak
    - Konfiantza / babesa (IIII I) 6
    - Entzutea
    - Segurtasuna
    - Onarpena
  - Prebentzioa = akzioa (eskuhartzearen fase garrantzitsua indarkeria lantzeko) (IIII) 4
    - Esku hartze goiztiarra
  - Erreferentzialtasuna, zerbitzuetako langileak (II) 2
  - Bertako profesionalak formakuntza (jakintza) behar dugu (IIII II) 7
  - Sarea, partekatze gune edo espazioa arloko profesionalen artean
  - Difusioa, nola iritsi, zein kanal erabili eta zer mezu eman behar den eredu garen eta erreferente garen heinean, ez bakarrik ekipamendu barruan baizik eta udal mailan eta Gipuzkoa mailan
- b. 2. Erronka\_Hitz gakoak
- Teknologien erabilera (indarkerian honen hazi bezala funtzionatu dezakeelako)
  - Kulturartekotasuna
  - Berdintasuna. Ez handiagoa ez txikiagoa. (Erronkaren formulazioa aldatu)
    - Berdinak
  - Eragina
  - Kezka, Beldurra (II) 2
  - Espazioaren erabilera generoaren ikuspegitik
  - Mutilekin lanketa nola egin, erreakzioko egoerari nola erantzun
    - Mutilak lagun bezala tratatu, beraiek parte direla eta ez daukatela horren errua
  - Kontzientziak piztea
  - Ardurak partekatzea / konpromezua
  - Asmakizunak
  - Feminismoa oinarria da
  - Kontzeptuak argitu
  - Elkarlana
  - Formakuntza jakintza eta iritzi kritikoa (jasotzen ari diren mezuekiko ikuspegi kritikoa) (IIII) 4
    - Hezkuntza komunitatearen formazioa, eragile guztietara iristea
  - Maskulinitatea lantzea, identitatean eraikuntzan laguntzea
  - Esperientziatik dagoen integrazioa

### 2. PARTEA: Erronkak lantzea

#### c. erronka

##### c.1. Maila Lokalean

###### *Taula*

#### — LURRALDE PLANEKO EKINTZAK

- Espazioaren sorkuntzan parte hartzea sustatzea; nerabeen iritzia kontutan hartzea
- Jokabide kodea barne araudia sortzea, espazioan neurriak zehaztea

- Eurekin batera jarrerak identifikatu
- Tratu onen murala
- Tratu onen dekalogoak sortu eta landu nerabeekin (ardura fitxak). Nola bai, ikuspegi positibotik neurriak landu
- Komunikazioa, ikus-entzunezko motz bat jokabide onak zabaltzeko

#### — LANTALDEA

- Lanketa talde bat sortzea (talde anitzak), eragileen arteko elkarlana
- Biktimak gizonetakoak, gizonen biktimekin enpatizatu dezaten. Hitzaldi bidezko lanketak adituekin
- LOPIVIari lotutako betebeharrak / protokoloak diseinu konpartitua egitea
- Jazarpen mahaia osatu eta jazarpenen kontrako protokoloa landu
- Lantaldeak zabaldu egin behar dira, eragile gehiago sartu behar dira
- Egunero entzun zer esaten duten

#### — FORMAKUNTZA

- Adintxikikoen kontrako indarkeriaren inguruko formakuntza
- Teoria asko dago baina gero “nola” hortan galdua egoten gara, lurreratzea // Baliabide / tresnak jaso
- Lantaldearen koordinazioa, hezitzaileak juntatu eta partekatu

#### — BESTEAK

- Hausnarketa prozesu bat bultzatzea hezitzaile taldeetan bakoitza bere zerbitzuetan
- Iritziak jaso gai honen inguruan (tratu onen inguruan)
- Balore etikoak ze punturaino errespetatzen diren, nerabeen ongizatea noiz dagoen zapalduta, noiz dagoen aske eta oreka bilatu
- Hausnarketarako espazio egokiak sortzea, kezkatik baino arduretatik
- Koordinazio hezitzaile / teknikari eta udal zerbitzuen arteko egoeren kudeaketan, protokoloetatik aparte edo protokoloen barruan espazioa eta erabakitze aukera

### c.2. Lurralde Mailan

#### *Taula*

#### — LURRALDE PLANEKO EKINTZAK

- Praktika onak partekatzeko espazioak (foroak)

#### — LANTALDEA

- Lurralde mailako gida, gero toki mailara egokitzeko (sexkuntza edo eskuhartze birtualean egin den bezala)

#### — FORMAKUNTZA

- LOPIVI Formakuntza
- Indarkeria kontzeptuaren inguruko formakuntza (nola deseraiki)
- Gurasoen eskuhartzea tratu txarrak ematen direnean

#### — BESTEAK

## Kronograma

- 2023 – 2024
  - Hausnarketa bakoitza bere gaztelekuan ikustea elkarbizitzan zein zailtasun dauden (murala bezalako edo behaketan bezalako ariketen bidez)
  - Nerabeekin batera landutako barne araudi bat, tratu onen dekalogoia sortu
  - Formakuntzak eskaintzea lurralde mailan, tratu onak eta lopivi
  - Lurralde mailako gida sortzea, lantaldean sortutako markoa, oinarri bat edukitzea toki mailan egokitzeko (sexkuntzan edo eskuhartze birtualean) egin den antzekoa.
- 2024 – 2025
  - Adituak gaztelekuetara ekartzea
  - Bideo motzak, euskarri digitalak sortzea lurralde mailan
  - Lantaldeen koordinazioa, eragile desberdinen mahaia toki mailan
  - Gurasoen esku-hartzea tratu txarrak ematen direnean (formakuntzak)
  - Jazarpen mahaia, koordinazio mahaia.
- 2025 – 2026
  - Praktika onak partekatzeko espazioa sortzea (foroak horretarako izan behar dute)
  - Biktima gizonezkoekin hitzaldi bidezko lanketak
  - Baliabide edo tresnak jasotzea
- 2026 – 2027
  - Jarraipena, ebaluazioa eta sortzen diren egoera berriei erantzuna emateko formakuntzak

## d. Erronka

### d.1. Maila Lokalean

- LURRALDE PLANEKO EKINTZAK
  - Sexologaren presentzia areagotzea, erreferentzialtasun hori lantzea eta bere orduak handitzea
  - Esperientzia errealak trukitzea, erreferente berriak eta sinesmenak zalantzan jarri
  - Bizikidetzaren arauak sortzea nerabeekin
  - Hezitzaileok zuzenki nerabeekin hitz egitea, galderak eginez eta esaten dutena zalantzan jarri
  - Eztabaida sesioak
  - Sare maila indartzea, herriko eragile guztiak biltzea talde feministarekin batera
  - Hilabetero batzea gazteekin genero identitatearen inguruko esperientziak partekatzeko
  - Sexualitatea txokoa martxan jartzea
  - Herriko pertsona desberdinen esperientziak partekatu gai hauen inguruan
  - Sare lana herri mailako eragile guztiekin
- LANTALDEA
- FORMAKUNTZA
  - Profesionalen aholkularitza jasotzea (hezitzaileek)
  - Maskulinitateak landu / tailerra (nerabeentzako zein hezitzaileentzako) (IIII)
  - Formakuntzak eragile guztientzako



— BESTEAK

- Haien hizkuntzara gerturatzea
- Arduradun politikoen ardura hartzea, lantaldean parte hartzea
- Hizkeraren filtroak

## d.2. Lurralde Mailan

### Taula

— LURRALDE PLANEKO EKINTZAK

- Ikerketa bat egitea jakiteko nondik sortzen diren nerabe mutilekiko ideia horiek, nondik sortzen diren mezuak, ideiak... errealitate hori ondo ezagutzea (Roma Gallardo, Naim Darrechi, tiktok-eko profilak...) Oinarria zein den jakiteko
- Gida bat egitea, maskulinitatearekin lotuta
- Jarrera matxistak kulturarekin defendatzen dituzte eta hezitzaileek tresnak behar dituzte hauei aurre egiteko. Kultur aniztasuna landu
- Sexkuntzarekin egin den lanketa aprobetxatu, lurreratu, sakondu
- Gazte mugimendu bat sortzea, gaztelekueetatik saretzea euren hizkuntza, eskualde mailan

— LANTALDEA

— FORMAKUNTZA

- Ikerketan ateratakoarekin formakuntza bat ematea

— BESTEAK

## Kronograma

— 2023 – 2024

- Ikerketa maskulinitate eta mutilen ideiak nondik datoze
- Aholkularitza profesionala jasotzea
- Maskulinitatean inguruko formakuntza / aholkularitza hezitzaileentzako
- Elkartrukea, herriko pertsonen esperientziak partekatzea
- Sexkuntzarekin egin den lanketa aprobetxatzea
- Arduradun politikoak eta teknikoak gai honetan inplikatu
- Maskulinitate berrien inguruko formakuntza
- Sare lana sustatzea, koordinazioa

— 2024 – 2025

- Gazte mugimendu bat sortzea, gaztelekueetatik eta eskualde / lurralde mailan
- Sexualitate txokoak ezartzea
- Bizikidetzara arauak ezartzea
- Hizkeraren filtratzea, umorean tapatuta dauden burla eta indarkeria egoerei jakin nola aurre egin, nola landu
- Eztabaida sesioak
- Hizketaldi orokorrak



→ Ikerketaren ondorioz formakuntza antolatzea

— 2025 – 2026

→ Kulturartekotasunean ematen diren gatazkak nola kudeatu

— 2026 – 2027

→ Sortu den teoria eta formakuntzekin batera gida bat sortzea eta gidan gertaera gogorretan erantzunen/ ekintzen zehaztapena jasotzea


\*Hezitzaile batek galdetu du, herrian eraso matxista bat egoten denean zer egin erasotzailea zerbitzuetako erabiltzailea bada. Ea protokolorik dagoen, goitik zerbait markatzen den, alor politiko edo teknikitik. Eta aurten Azpeitian horrelako kasu bat eman dela aipatu da eta hezkuntza formaletik, ikastetxeetatik bideratu dute lanketa. Hezitzaileak zentzura joan dira esku-hartzea egitera. Bestela, ez dago protokolorik.


\*Zerbitzuen beharra aldarrikatu, “errekonozimendu mailak daude”




## Erronken lanketa



### NERABEENTZAKO ZERBITZUA KOMUNITATEAN TXERTATUTA EGOTEA ETA DENONTZAT IZATEA







**TOKI MAILAN HEZKUNTZA EZ-FORMALAREN EKOSISTEMA IDENTIFIKATU ETA INDARTZE**



## TALDEA: Gazteak 1

### 3. Erronkak ulertzea, hitz gakoak

#### a. Gazteen ezinegon emozionalari erantzun

- Suizidioaren tabua.
- Benetan gazteen egoera kezkarriagoa da beste adinetakoena baino? Zalantza. Gizartearen koherentzia falta orokorra da (espektatiba, kanon eta errealtatearen arteko arrakala) eta biztanle guztiei eragiten die.
- Indibidualismoa, bakardadea, iluntasuna. Ekonomiak dominatutako gizartea. Klikaren gizartea, berehalakotasuna exijitzen duen gizarte honetan zer nolako erantzuna eman administratibotik? (erronka zaila)
- Aldaketa sakona behar da. Komunitatea eta herrigintza indartu, talde estrategia garatu.
- Gazteek beren bizi-proiektua aurrera ateratzeko duten ziurgabetasuna.
- Sustapenaren rola gai honetan? Beharrak balioan jarri eta baliabideak erreklamatzeko. Lanketa egitekotan, osasun profesionalekin elkarlanean egin beharra.
- Osasun mentaleko arreta publikoa garatzea (egun pribatuek ematen dute erantzuna eta irisgarritasun ekonomikoa ez dago bermatua)
- Gazteekin lan egiten duten eragile guztiek detekzio goiztiarra garatzeko beharra. Eta sistemen arteko koordinazioa; esku-hartze mahaiak edo dena delakoak toki mailan.
- Formakuntza eta egunerokorako lan tresnak gazteekin lan egiten dugunontzat.
- Gazteekin eta familiekin gaia lantzea
- Ikusgarritasuna eman gaiari (prebentzioa da). Heziketa emozionala haurtzarotik hasita, hurrengo jenerazioak gaztarora buru osasun hobearekin iritsi daitezten.

#### b. Gazteen ekimenak sustatu

- Sustapenak bide laguntza eta aukerak eskaini behar dizkie gazteei
- Beren proiektuak garatzeko, eta guk horiei laguntza emateko, espazio edo guneak sortzea toki mailan
- Ekintzailatza bultzatu, ondoren ekimenak sor daitezten
- Etorkizuna eraiki eta babestu
- Gazteen ahotsa eta parte hartzea erdigunean jarri (eta bultzatu!)
- Entzun eta erantzuteko prest egon. Antena piztu, adi egon, gazteen ekimenak ezagutzeko.
- Iniziatiba duten gazteak saretu
- Belaunaldien arteko proiektuak garatzeko diru-laguntzak
- Ondasun material gehiago eta oinarriko balio gutxiago daude egun, frustrazio iturri. Nahasmena?
- Moratoria profesionala eta amateurra

### 4. Erronken lanketa

#### e. Gazteen ezinegon emozionala

##### e.1. Herri mailan garatzeko erantzunak

###### — LANTALDEAK

- Badabidebat zerbitzuarekin [itxaropen telefonoaren gazteentzako bertsioa] edo antzerako osasun/gizarte agenteekin proba pilotuak egin, udaleko osasun, sustapen, etab. inplikaturaz gazteen beharrei erantzuna emateko, ahalik eta

hurbiltasun handienarekin. Entzute zerbitzu moduan, edo baita osasun taller moduan ere.

→ Gazteen inguruan lan egiten dugun profesionalak saretu eta eragile ezberdinen artean koordinatu

### — FORMAKUNTZA

- Emozioen kudeaketarako ezagutza zabaltzea, gizarteratzea. Hitzaldi, taller, etab.
- Osasun arlokoak ez garen baina gazteekin lan egiten dugun profesionalon formakuntza bermatu detekzioa egin ahal izateko. Ezinegon egoera horien aurrean nola jokatu jakiteko gakoak eskuratu.
- Gazteei heziketa afektibo-sexualari, emozioen kudeaketari etab.i buruzko argibideak eskaintzen jarraitu [treba moduko saioen bidez, adibidez].
- Hezkuntza formalean trebetasun sozialak garatzeko lanketak txertatu ahalik eta gazte gehienengana iristeko [adb.: EKKO Arrasate eta Aretxabaletan].

### — BESTEAK

- Hainbat herritan “osasun sarea”, “esku-hartze mahaiak” edo antzerako koordinazio guneak badira, baina gehienbat 3. adinera bideratuak. Gune berririk sortu gabe, lehendik dauden horiek gazteetara eta sustapeneko eragileetara zabaldu. Bestela, gazteriako foro edo batzorde propiorik badago, berau indartu.
- Kidekoen arteko laguntza taldeak sortu. Gazte “behatzaileen” sarea.
- Sentsibilizazioa, babes sareak garatu herri mailan, bai familia eta baita gurasoekin ere.
- Gazteek beren nortasuna “landu” edo “probatu” ahal izateko espazio ireki eta seguruak eskaini. Laborategi, tailer edo dena delakoak.
- Toki mailako eragileekin protokolo bat sortzea, suizidioa ahaztu gabe.
- Osasunari eta buru osasunari buruzko ekimenei ikusgarritasuna eman, batez ere gazteen inizatibakoak direnean.
- Gaiari ikusgarritasuna emateko kanpainak garatu eta baliabideak eskaini.
- Ez dagokigu Osakidetzaren hutsunea betetzea, baina urgentziei erantzuna eman behar zaie eta momentuko ezinegonari erantzuteko “psiko-bonuak” edo kontsulta psikologikorako laguntza eskaintzea.

## e.2. Lurralde Mailan

### — LURRALDE PLANEKO EKINTZAK

- Beste lurralde batzuetako esperientzia interesgarriak jaso (praktika onak).
- Sustapenetik gai honi buruz egin dezakegunari buruzko gutxieneko bat definitu edo adostu Gaztematikan.
- Gazteentzat osasun/ongizate baliabideen mapa bat osatu (psikologoak etab.)
- Profesionalontzat baliabideen eta eragileen beste mapa bat osatu, batez ere toki mailakoak ez diren eragile edo erakundeekiko harremana errazteko.

### — LANTALDEA

- Adin guztiak kontuan hartuta, osasun mentala jorratzeko interesa duten sustapen teknikariek lantaldea sortu Gaztematikan.

### — FORMAKUNTZA

- Treba programa mantendu, eta buru osasunari dagokion eskaintza indartu



→ Hezkuntza emozionala garatu gazteak dauden guneak aprobetxatuz (beraiengana hurbildu). Gaia haur eta nerabeekin aipatzen da baina gazteak ahazten dira maiz.

### — BESTEAK

- Gazteen inizatibak garatzeko laguntza teknikoa eskaini.
- Sentsibilizazio kanpaina. Gazteei buruz dauden aurreiritziak erakutsi eta beste errealitate bat erakutsi spot baten bidez.
- Oinarrizko protokolo bat edo antzeko zerbait lantzea baliabide gutxiago dituzten eta lanketa propioa egin ezingo dutenentzat
- Gazteen arteko elkar ezagutza sareak sustatu.
- Hezkuntza ez formalaren eta formalaren arteko lankidetzaz bideratu
- Hezkuntza formaleko irakasleak gai honen garrantziaz kontzientziatu eta baliabideak eman.
- Bide-laguntza/aholkularitza

### Kronograma

#### — 2023 – 2024

- Treba gazteak eskaintza indartu osasun/ongizateari lotutako gaitan
- Profesionalok gai hauetan oinarrizko formakuntza jasotzen hasi
- Osasun mentala jorratzen hasteko lantaldea sortu
- Gazteen ongizate emozionalari buruzko sentsibilizazio kanpaina egiteko prestaketa hasi

#### — 2024 – 2025

- Aholkularitza zerbitzu bat eskaini gaizteei gai hauei buruz
- Lantaldea osatu praktika onak ezagututa gazteentzako espazio seguruak garatzeko/sortzeko oinarriak zehazteko.
- Garatu beharreko gutxieneko estrategia eta ekintza plana adostu Gaztematikan.
- Baliabideen mapak osatu; kanpora begira, gazteei komunikatzeko, eta sustapeneko profesionalontzat beste bat.
- Kanpaina gauzatu (goi mailako irakaskuntza zentroetan ere)

#### — 2025 – 2026

- Toki mailan esku-hartzen duten beste eragileekin koordinazioa errazteko zubi lana egin

#### — 2026 – 2027

→

### f. Gazteen ekimenak sustatzea

#### f.1. Maila Lokalean

— LURRALDE PLANEKO EKINTZAK

— LANTALDEA

— FORMAKUNTZA

— BESTEAK

- Gazteen nahiak jaso, entzun. Beharrak identifikatu

- Ekintzailletza eta inizatiba-kultura sustatu (helburua funtzionario izatea dela transmititu diegu).
- Ekintzaileak identifikatu eta beraien arteko saretzea/ elkar ezagutza sustatu herri edo eskualde mailan, horretarako topagune, leku eta baliabideak erraztuz.
- Gazteentzako ekipamendua/zerbitzua sortu
- Administrazioak gazteekin harremana egiteko kanalak indartu eta landu.
- Gazteen zerbitzua eta emantzipazio bulegoa izango dena nola uztartu definitu, horren baitan gazteentzako jarduera eta sorkuntza baliabideak ere txertatuz.
- Udaleko alor ezberdinetatik (hirigintza etab.) komisioetarako eskatzen den gazteen ordezkariak ez du funtzionatzen, beti eragile berak dira eta erreta daude. Elkarre bidezko ordezkariak ez du funtzionatzen gaur egun.
- Elkarre gisa edo erakundetu gabe dauden gazte taldeen eskaerei erantzuna eman ahal izateko, beraiekin lan egiteko modua definitu.
- Elkartegintza bultzatzeko, burokrazia arindu.
- Jarduera fisikoa eta kirola sustatu (kirol instalazio publikoetan eta elkarreekin) gazteak ere kontuan izanik (tarifak, ekintza erakargarriak). Udal mailan kirolaren osasun eta gizarteratze rola babestu.
- GPTxo proiektuko hezitzaileak kasuak deribatzeko protokoloa zehaztu
- Kontratu publikoetako baldintzak (klausula sozial eta berdintasunekoak) berrikusi gazteak, enpresa berriak sartu ahal izan daitezen

## f.2. Lurralde Mailan

### — LURRALDE PLANEKO EKINTZAK

- Gazte plan estrategikoa definitu edo azterketa partekatu. Beste esperientzia batzuk ezagutu (bidaia-bisita)
- Gazteen zerbitzua (edo minimo bat) definitzea

### — LANTALDEA

- Gazteekin komunikazio kanal egokiak garatzeko lanketa (esperientzia onak ezagutu, orientabideak garatu etab.)

### — FORMAKUNTZA

### — BESTEAK

- Gaztetxeekin lankidetzak bideak ireki, gazteriako eragile gisa aintzat hartu behintzat. Orain arte gaztematikan ez ditugu txertatu.
- Ekintzailletza sustatzeko aliantzak bilatu (fakultateak, enpresa mundua, etab.) lurralde mailan, Aldundiko beste sail batzuekin.
- Emantzipaziorako laguntzak indartu eta ogasunarekin elkarlana sortzen saiatu.
- ZMZ moduko lanketa 14 urtetik gorakoekin garatzea (gazteekin). Edo estatistika iturrietan (behatokia) gazteei buruz dauden datu/ikerketak partekatu eta ezagutzeko saioa proposatzea. Egun bat.

### *Kronograma*

— 2023 – 2024

- Beste lurralde batzuetako esperientziak ezagutzeko bidaia antolatu sareko profesionalontzat
- Parte hartze aktiboa eta ekintzailtza sustatzen hasi
- Gazteekin komunikazio bide eraginkorrak sortzeko proposamena hausnartu
- Emantzipaziorako laguntzen harira, ogasunarekin elkarlana abiatu

— 2024 – 2025

- Gazteria behatokiak lantzen dituen ikerketak eta datuak aurkezteko eta sareko kideen artean irakurketa partekatze saio bat antolatu
- Gazteekin komunikazio bide eraginkorrak sortzeko proposamena garatzen hasi

— 2025 – 2026

— 2026 – 2027

### TALDEA: Kudeaketa 1

#### 1. PARTEA: Erronkak elkarrekin ulertzea

- a. 1. Erronka: **Gaztematikako kideen arteko elkarlana bultzatzea**. Hitz gakoak
- **Konpromisoa**, inplikazioa indartu behar da (bi aldiz aipatu da konpromisoa); **politikariekin** ere
  - **Lankidetz**a indartu
  - **Herrien tamainarekin** lotutako sareak sustatu,
  - **Eskualdeko** sareak sustatu hiru pertsonak aipatu dute
  - **Herrien arteko** proiektu partekatuak sustatu
  - Lankidetz a indartzeko **barne komunikazioa** indartu
  - Hezitzaileen **baldintzak hobetu**
  - **Partaideen beharrak** entzun, eta hortik abiatu elkarlana sustatzeko.
  - Politikarien **sentsibilizazioa egin**, babesa, baliabide gehiago lortu ahal izateko
  - **Koordinazioari** denbora gehiago eskaini, barne lanerako ordu gehiago
  - Beste arloetatik datozenei eta berriei **formazioa** eman
  - **Sarearen baliagarritasuna** adierazteko zailtasunak gainditu beharra
- b. 2. Erronka **Sareko profesionalen teknifikazioa hobetzea, lan taldeak bultzatzea**. Hitz gakoak
- Teknikarien **ezagutza maila** ezagutu; **beharretatik abiatu** teknifikazioa diseinatzeko
  - **Jardunaldi/mintegi** formatua berreskuratu
  - Lehentasunak eta **denbora falta** ezin uztartu, batez ere arlo bat baino gehiago daramakiztenentzat. Denbora antolatu, sustapena azkena ez geratzeko
  - Lan taldeetan parte hartzeak eskatzen duen lana eta ateratzen den **etekina ez** daude orekatuta, zalantzan jartzen da benetan teknikari bakoitzarentzat baliogarria den, batez ere herri txikietako teknikarientzat.
  - Oso baliagarria da **esperientzia berriak eta besteen esperientziak** ezagutzea, **irteerak** egin besteen esperientziak ere ezagutzeko.
  - **Praktika onak** partekatu
  - **Pleguetan** formakuntzarako denbora kontuan hartu

#### 2. PARTEA: Erronkak lantzea

##### g. Erronka **Gaztematikako kideen arteko elkarlana bultzatzea**

###### g.1. Maila Lokalean

###### — LURRALDE PLANEKO EKINTZAK

→

###### — LANTALDEA

- Eskualdeko taldeak sortu, hezitzaileenak adibidez, ekintza amankomunak antolatzeke.
- Arlo ezberdinak daramazkiten arteko elkar guneak aprobetxatu sustapena ere lantzeko.
- Batzordetan zerbitzuen ikusgarritasuna landu, horretarako bideoak egongo balira hobeto.
- Herrian zerbitzuetako datuak (erabiltzaileenak) zabaldu.
- HPIS formatu bezala, non arlo ezberdinetako teknikariak eta hezitzaileak biltzen diren, oso baliagarria da, batez ere zeharkako gaiak lantzeko.

###### — FORMAKUNTZA

- Zinegotzientzat formakuntza eskaini
- Politikariekin modu iraunkorrean lanketa egin, ez bakarrik legeintzaldi hasieran

- Egungo beharrak (hezitzaileenak, teknikarienak) identifikatu
- Sustapenaren inguruko formakuntza txiki bat udaleko beste arlo tekniko eta politikoari eskaintzeko.

— **BESTEAK**

- Udaleko best arloetako proiektuetan HNGen parteharzea txertatu
- Pleguetan jaso koordinaziorako eta sarerako behar den dedikazioa
- Batzorderen bat zerbitzuetan egin zinegotziak zerbitzuak gertutik ezagutzeko
- Udal mailako koordinazioa sustatzeko gunea sortu, teknikarien protagonismo nahia gaindituz eta elkarlanean oinarrituz
- Udal egitura berriak asmatu beharko lirateke, baina, aldi berean, udal estruktura aldatzeko beharko litzatekeen esfortzua egiteko indar nahiko daukagun zalantzan jartzen da.
- Zinegotziarekin koordinazioa gauzatzea, ematen dela ziurtatzea, oso garrantzitsua da; batez ere herri txikietan
- Hezitzaile, teknikari eta gazteen arteko hausnarketarako espazioak sustatu

**g.2. Lurralde Mailan**

— **LURRALDE PLANEKO EKINTZAK**

- Aldunditik herriekin harremanetan jarri, urtero, sarearekiko konpromisoa berresteko.
- Foro politikoa berruskuratu, Berdinbidean erabiltzen den formatua kopiatu: foro mistoak, erreferente tekniko eta politikoen partaidetza baldintza bezala jarritz.
- Ekimen bateratuak egitea gai jakin batean inguruan: datu babesa, zmk, erasmus plus,...
- Esperientziak partekatu
- Foroetan zergatik ez den parte hartzen aztertu, ikertu
- Elkarlana/sareak alboko herriekin egin edo egoeraren arabera antolatu?

— **LANTALDEA**

- Lan taldeetan egiten dena hobeto/gehiago zabaldu

— **FORMAKUNTZA**

- Bideo baten bidez sarea zer den azaldu politikariei; adostasunik ez, politikariei esfortzu gehiago eskatu behar zaileko.
- Politikarientzako aholkularitza zerbitzua eskaini; zalantzak, galderak argitzeko guneren bat sortu.
- Sarearen inguruko informazioa zabaldu legegintzaldi hasieran
- Lurralde Planarekin lotutako formakuntzak eskaini
- Bulego teknikoaren bidez jasotzen den formakuntza eta erreferentzialtasuna oso inportantea da.
- Aholkularitza banaka edo taldeka antolatzeko kontuan izan behar da teknikari bakoitzaren egoera edo abiapuntua.

— **BESTEAK**

-

## Kronograma

- 2023 – 2024
  - Foroetan zergatik ez den parte hartzen aztertu
  - Bideo baten bidez zinegotzi berriei Gaztematika azaldu
  - Sarearen inguruko informazioa zabaldu legegintzaldi hasieran
  - Aldunditik herriein harremanetan jarri, urtero, sarearekiko konpromisoa berresteko.
  - Foro politikoa berruskuratu, Berdinbidean erabiltzen den formatua kopiatu: foro mistoak, erreferente tekniko eta politikoen partaidetza baldintza bezala jarritz
  - Lurralde Planarekin lotutako formakuntzak eskaini
- 2024 – 2025
  - Ekimen bateratuak egitea gai jakin batean inguruan: datu babesa, zmk, erasmus plus,...
  - Esperientziak partekatu
  - Banaka edo taldeka antolatzeke kontuan izan behar da teknikari bakoitzaren egoera edo abiapuntua.
  - Lan taldeetan egiten dena hobeto/gehiago zabaldu
  - Elkarlana/sareak alboko herriein egin edo egoeraren arabera antolatu?
- 2025 – 2026
  -
- 2026 – 2027
  -

## **h. Erronka Sareko profesionalen teknifikazioa hobetzea, lan taldeak bultzatzea**

Bigarren erronka lurralde mailan bakarrik landu da.

### h.1. Lurralde Mailan

#### *Taula*

- LURRALDE PLANEKO EKINTZAK
  -
- LANTALDEA
  - Lan taldeetan parte hartzeko aukera murriztu.
  - Lan taldeetan garatu dena partekatzeko intranet berrian gune bat sortu.
  - Lan taldeen iraupena zehazteko herrien tamaina eta egoera kontutan izan
- FORMAKUNTZA
  - Hezitzaile eta teknikarien beharrak identifikatu.
  - Formakuntzarako zenbat ordu dituzten jakin, bai teknikari bai hezitzaileak.
  - Zalantzak, galdera puntualak argitzeko gune bat eduki
  - Irteerak antolatu
- BESTEAK
  -

Kronograma : Ez da denbora lerrorik osatu